

**ARABAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, Ayala eta Artziniegako udalerrietan, A-624 errepideko 49+900 eta 55+300 puntu kilometrikoen arteko zatiaren trazaketa –Menagarai-Artziniega– eraikitzeko, egokitzeko eta hobetzeko proiektuak hartzen dituen ondasun eta eskubide guztien titularren zerrenda jendaurrean jarri dela jakinarazten duena.

2285

**ARRIGORRIAGAKO UDALA**

IRAGARPENA, Nerbioi ibaiaren erdi-aldea hornitzeko proiektuak hartzen dituen lurra okupatu aurreko aktak egiteari buruzkoa. I Aldia: Arrigorriaga-Ugao-Miraballes.

2303

**Xedapen Orokorrak****OSASUN SAILA****Zk-688**

9/1997 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, kanpo-protesi, gurpil-aulkiei, ortesiei eta protesi bereziei buruzko ortoprotesi zerbitzuak arautzen dituen.

Osasun Sistema Nazionalaren osasun prestazioen ordenazioari buruzko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan ortoprotesi zerbitzuak «zerbitzu osagarriak» deritzen atalean sartuta daude; eta ortoprotesi zerbitzu horien berariazko araudia 1996ko urtarrilaren 18ko Ministro-Aginduak ezarri zuen.

«Osasun Sailaren eta Osakidetza izeneko Administrazio-Organismo Autonomoaren egitura organikoak eta funtzionalak ezartzen dituen uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuan» ortoprotesi zerbitzuen gaineko erantzukizuna Osasun Sailaren menpeko Osasun Aseguramendu eta Kontratazioarako Zuzendaritzari esleitzen zaio, nahiz eta Dekretu hori eman aurretik eskumen hori Osakidetzari zegokion.

Arau- nahiz eskumen-aldaketa hauek guztiak ikusita, beharrezkoa da EAEn ortoprotesi zerbitzuaren antolamendua eguneratzea eta, aplikazioari begira, araudi bakarria egitea.

Ondorioz, Osasun sailburuaren proposamenez, Jaurritzaren Kontseiluak 1997ko urtarrilaren 22ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

1. atala.– Helburua.

Osasun Sistema Nazionalaren kanpo-protesi, gurpil-aulkiei, ortesiei eta protesi bereziei buruzko ortoprotesi zerbitzuak, Euskal Autonomi Elkartearen, dekretu

**DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA**

ANUNCIO relativo a la información pública de todos los titulares de bienes y derechos afectados por el Proyecto de Construcción, Acondicionamiento y Mejora de Trazado en la Carretera A-624, tramo Menagarai-Artziniega, entre los P.K. 49+900 a 55+300, dentro de los Términos Municipales de Ayala y Artziniega.

2285

**AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA**

ANUNCIO relativo al levantamiento de Actas Previas a la ocupación del Proyecto de Abastecimiento al medio Nervión. Fase I: Arrigorriaga-Miraballes.

2303

**Disposiciones Generales****DEPARTAMENTO DE SANIDAD****Nº-688**

DECRETO 9/1997, de 22 de enero, por el que se regula la prestación ortoprotésica relativa a prótesis externas, sillas de ruedas, órtesis y prótesis especiales.

El Real Decreto 63/1995, de 20 de enero, sobre Ordenación de Prestaciones Sanitarias del Sistema Nacional de Salud, incluye la prestación ortoprotésica entre las denominadas Prestaciones Complementarias y la Orden Ministerial de 18 de enero de 1996 desarrolla la regulación específica de la prestación ortoprotésica.

El Decreto 369/1996, de 11 de julio, por el que se establecen las estructuras orgánicas y funcionales del Departamento de Sanidad y del Organismo Autónomo Administrativo Osakidetza-Servicio vasco de salud, atribuye la responsabilidad sobre esta prestación a la Dirección de Aseguramiento y Contratación sanitaria del Departamento de Sanidad, si bien con anterioridad al citado Decreto, la competencia correspondía a Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Todos estos cambios normativos y competenciales aconsejan actualizar la ordenación de la prestación ortoprotésica en nuestra Comunidad y articular en una sola norma la reglamentación necesaria para su aplicación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión de 22 de enero de 1997,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

La prestación ortoprotésica relativa a prótesis externas, sillas de ruedas, órtesis y prótesis especiales del Sistema Nacional de Salud se facilitará a la población

tu honetan ezarritakoaren arabera arautuko dira; beti ere aintzat hartuta Osasun Sistema Nazionalaren osasun prestazioen ordenazioari buruzko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretua, zerbitzu horien berariazko araudia ezartzen duen 1996ko urtarrilaren 18ko Ministro-Agindua eta aplikatzekoak diren gainerako arau oinarritzkoak.

### 2. atala. – Ortoprotesi zerbitzuen edukia.

Kanpo-protesiei, gurpil-aulkiei, ortesiei eta protesi bereziei buruzko ortoprotesi zerbitzuen edukia Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorra onartzearekin ezarriko da. Katalogo hori Osasun sailburuak emandako agindu batez onartuko da eta bertan Osasun Sailak zati batean finantzatu ditzakeen sanitare produktuak agertuko dira, honako datuok: identifikazio-kodearen zenbakiak; gehieneko prezioak; hala badagokio, erabiltzaileak ordaindu beharreko diru-kopurua; preskribitzeko baldintza bereziak; berritzeko betebeharrak, eta bermearen indarraldia.

Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorra aldiari eguneratu ahal izango da, zatika edo osorik, Osasun sailburuaren aginduz.

### 3. atala. – Preskripzioa.

Osasun Sailaren finantzazioa jasotzeko, kanpo-protesiek, gurpil-aulkiek, ortesiek eta protesi berezietan honako baldintzak bete behar dituzte:

1.– Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorrean agertzea. Salbuespenez, eta behar bezala justifikatuta, 1996ko urtarrilaren 18ko Ministro-Aginduan berariaz baztertu ez diren produktuak ere onartu ahal izango dira.

2.– Osakidetzako atentzio bereziko mediku espezialista baten preskripzioa, hain zuzen, kasuan kasuko koadro klinikoari dagokion alorrean espezializatutako medikuarena. Horietaz gainera, zerbitzu horren ikuskapena euren lan-zereginen barruan duten ikuskaritza-zerbitzuetako edo osasun-administrazioko medikuek ere egin ahal izango dituzte preskripzio horiek.

3.– Preskripzioa Osasun Aseguramendu eta Kontratazioarako zuzendariak onartutako ereduaren arabera egingo da.

### 4. atala. – Salmenta-establezimenduak.

1.– Ortoprotesi zerbitzuetako sanitare produktuak egiteko eta saldu ahal izateko, zentro, zerbitzu eta osasun-establezimenduen zeinek bere araudi propioaren araberako administrazio-baimenak lortu beharko dituzte, eta dagokien lankidetzahitzarmena sinatu beharko dute Osasun Sailarekin. Dekretu honen ondorioetarako, zentro, zerbitzu eta establezimendu horiek «salmenta-establezimendu» izena hartuko dute.

2.– Osasun sailburuak onartuko ditu ortoprotesi zerbitzuak saltzeko lankidetzahitzarmenetako baldintza orokorrak.

en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco con arreglo a lo establecido en el presente Decreto, en el marco del Real Decreto 63/1995, de 20 de enero sobre Ordenación de Prestaciones Sanitarias del Sistema Nacional de Salud, de la Orden de 18 de enero de 1996 que desarrolla la regulación específica de la prestación ortoprotésica y demás normativa básica de aplicación.

*Artículo 2.*– Contenido de la prestación ortoprotésica.

El contenido de la prestación ortoprotésica relativa a prótesis externas, sillas de ruedas, órtesis y prótesis especiales se determinará mediante la aprobación por Orden del Consejero de Sanidad del Catálogo General de Material Ortoprotésico. En dicho catálogo se relacionarán los productos sanitarios susceptibles de financiación por parte del Departamento de Sanidad, sus números de código identificativo y precios máximos y, en su caso, la aportación del usuario, las condiciones especiales para su prescripción, los requisitos para su renovación y el plazo de garantía.

El Catálogo General de Material Ortoprotésico podrá ser objeto de actualización total o parcial con carácter periódico mediante Orden del Consejero de Sanidad.

### *Artículo 3.*– Prescripción.

A los efectos de su financiación por el Departamento de Sanidad, las prótesis externas, sillas de ruedas, órtesis y prótesis especiales deberán:

1.– Estar incluidas en el Catálogo General de Material Ortoprotésico, pudiendo admitirse, con carácter excepcional, y debidamente justificado, otros productos no expresamente excluidos en la Orden ministerial de 18 de enero de 1996.

2.– Estar prescritas por facultativos de atención especializada de Osakidetza-Servicio vasco de salud especialistas en la materia correspondiente al cuadro clínico que justifique la prescripción. También podrán realizar prescripciones los médicos de los servicios de inspección o de la administración sanitaria que tengan la supervisión de esta prestación entre sus contenidos de trabajo.

3.– El documento de prescripción se ajustará al modelo normalizado que apruebe el Director de Aseguramiento y Contratación Sanitaria.

### *Artículo 4.*– Establecimientos dispensadores.

1.– La elaboración y dispensación de los productos sanitarios comprendidos en la prestación ortoprotésica se llevará a cabo única y exclusivamente en aquellos centros, servicios o establecimientos sanitarios que cuenten con las oportunas autorizaciones administrativas de acuerdo con lo dispuesto por su normativa específica y suscriban con el Departamento de Sanidad el oportuno convenio de colaboración. A los efectos del presente Decreto, tales centros, servicios o establecimientos se denominarán establecimientos dispensadores.

2.– Las condiciones generales de los convenios de colaboración para la dispensación de la prestación ortoprotésica serán aprobadas por el Consejero de Sanidad.

3.— Lankidetzaz-hitzarmena Osasun Sailarekin sinatzeko eskabideak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean aurkeztu beharko dira. Eskabidearekin batera, honakoak justifikatu beharko dira egiaztagiri bidez:

a) Establezimenduen datuak (izena, helbidea, telefonoa, faxa).

b) Bertako titularren identifikazio-datuak (izen-deiturak, NAN edo sozietate-egoitza, identifikazio fiskalaren zenbakia) edo, titularra pertsona juridikoa bada, legezko ordezkariaren identifikazio-datuak (izen-deiturak eta NAN).

c) Teknikari ortopediko/teknikari ortoprotesikoaren identifikazio-datuak (izen-deiturak, NAN, titulazioaren kopia konpultsatua eta enpresarekin duen lotura juridikoa azaltzen duten egiaztagiriak).

d) Plantilako langileen zerrenda, guztien lanbide-maila, lotura juridikoa eta dedikazio-erregimena azaltzen dituenak.

e) Jarduera egingo den lokalen deskripzio laburra, bertako planoak eta dituen baliabide teknikoak.

4.— Osasun Aseguramendu eta Kontrataziorako zuzendariak ebatziko ditu eskabideak, hiru hilabeteko epean, alde aurretik establezimendu eskatzaileek dekretu honetan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatu ondoren —horretarako, lokalen ikustaldi bat eta ikuska-pen-akta bat egingo dira—.

5.— Epe horretan ebazpena eman ezean, eskabideak ezetsi direla ulertuko da.

6.— Behin aldeko ebazpena jakinarazten denetik aurrera, hamabost egunetan, gehienez, sinatu beharko dira hitzarmenak.

7.— Establezimenduek berek eskatuta baliogabetu ahal izango dira hitzarmenak. Betetzen ez direla egiaztatzen denean, Osasun Sailak ere ebatzi ahal izango ditu.

5. *atala.*— Erabiltzailearen aukera salmenta-establezimenduen artean.

Erabiltzaileek aukera izango dute salmenta-establezimendua hautatzeko, Osasun Sailarekin hitzarmena sinatu dutenen artean. Horretarako, preskripzioa egin deneko unitate administratiboak edo pazienteak atenditzeko zerbitzuak hitzarmena sinatua duten establezimenduen zerrenda helaraziko dio erabiltzaile horri.

6. *atala.*— Salmenta-establezimenduen betebeharrak.

1.— Aurreko bi ataletan aipatutako establezimenduek beharrezkoa izango dute Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorrean agertzen diren produktuen modulu bana, gutxienez, edukitzea Katalogoan agertzen den prezio berean edo merkeago (zergak barne).

2.— Erabiltzaileak preskripzio-agirian aurkeztu duen sanitate produktuak modulu bakarra badu, horixe saldu beharko dio establezimenduari, derrigorrez.

3.— Las solicitudes para suscribir el convenio de colaboración deberán presentarse en el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco acompañadas de la documentación precisa para acreditar los siguientes extremos:

a) Datos del Establecimiento (Denominación, Dirección, N.º Teléfono-N.º Fax.).

b) Datos identificativos del titular del mismo (nombre, apellidos, N.º DNI o razón social, número de identificación fiscal) y en caso de que éste fuese una persona jurídica, datos identificativos de su representante legal (nombre, apellidos y N.º DNI).

c) Datos identificativos del Técnico Ortopédico/Técnico Ortoprotésico (Nombre, Apellidos, N.º DNI, copia compulsada de la titulación, Documento/s acreditativos de su vínculo laboral con la empresa)

d) Plantilla del personal con especificación de las categorías profesionales y detalle de la vinculación jurídica y de su régimen de dedicación.

e) Breve descripción y plano de los locales destinados a la actividad con la dotación técnica de los mismos.

4.— Las solicitudes serán resueltas por el Director de Aseguramiento y Contratación Sanitaria en el plazo máximo de tres meses, previa comprobación de que los establecimientos solicitantes cumplen los requisitos establecidos en este Decreto y cuantas disposiciones pudieran resultarles de aplicación. Dicha comprobación incluirá, en todo caso, una visita y un acta de inspección de los mismos.

5.— La falta de resolución en plazo de estas solicitudes tendrá efectos desestimatorios.

6.— Los convenios deberán suscribirse en el plazo máximo de quince días a partir de la notificación de la resolución favorable.

7.— Los convenios mencionados podrán extinguirse a instancia del establecimiento interesado o, cuando exista incumplimiento demostrado de los mismos, podrán ser resueltos por el Departamento de Sanidad.

*Artículo 5.*— Elección por el usuario del establecimiento dispensador.

Los usuarios podrán elegir libremente el establecimiento dispensador de la prestación ortoprotésica entre aquellos que hubieran suscrito el oportuno convenio de colaboración con el Departamento de Sanidad. A tal efecto, la Unidad Administrativa o el Servicio de Atención al Paciente del centro sanitario en que haya tenido lugar la prescripción les facilitará la relación de establecimientos firmantes del convenio.

*Artículo 6.*— Obligaciones de los establecimientos dispensadores.

1.— Los establecimientos a los que se refieren los dos artículos anteriores habrán de disponer de al menos un modelo de cada producto sanitario relacionado en el Catálogo General de Material Ortoprotésico, a un precio igual o inferior al establecido en el mismo, impuestos incluidos.

2.— Estos establecimientos están obligados a dispensar al usuario el modelo del producto sanitario especificado en el documento de prescripción que éste les pre-

Ordea, produktuaren modelu ezderdinak badaude eta denek aurreko idazatian xedatutakoa betetzen badute, erabiltzaileak aukeratutako huraxe saldu beharko dio.

3.- Preskribitutako sanitare produktua erosterakoan, aukeran, erabiltzaileak eskubidea izango du Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorrean adierazten den baino prezio altuagoko modeluak eskuratzeko. Horrela eginez gero, establezimendu saltzaileak ohartaraziko dio Katalogo produktuaren eta benetan erosi duenaren arteko aldea bere kabuz ordaindu beharko duela, hots, ez duela Osasun Sailak finantzatu.

4.- Gertatzen bada kode-zenbakia eta produktuaren deskripzioa bat ez etortzea preskripzio-agirian, deskripzioak izango du lehentasuna; honi erreparatuko dio establezimenduak eta deskribatutako produktua eta ez bestea salduko du, horri benetan dagokion kodearen araberrako prezioan. Gorabehera horren berri eman beharko die, gainera, saltzaileak erabiltzaileari eta preskripzioa egin duen espezialistari.

5.- Neurritara, beren-beregi egindako produktuetan eta erabiltzaileari propio egokituta egindakoetan, baita horien guztien konponketetan ere, preskripzio-agirian medikuak adierazitako oharrei lotuko zaizkie establezimenduak.

6.- Edozein kasutan ere, establezimendu saltzaileak produktuaren bermealdia eta osagaiei buruzko agiria eta argibide-orri bat emango dizkio erabiltzaileari. Argibide-orri horretan ohiko erabileran bete beharreko gomendioak eta oker ez erabiltzeko oharrak jasoko dira.

7.- Halaber, 11. atalaren arabera ortoprotesi zerbitzuaren zuzeneko ordainketa baimentzen den kasuetan izan ezik, preskripzio-agiria itzuliko dio establezimendu saltzaileak erabiltzaileari eta, horrekin batera, jatorrizko faktura emango dio.

#### 7. atala.- Preskribitutako produktuak probatzea.

1.- Neurritara, beren-beregi, egindako produktuetan eta erabiltzaileari propio egokituta egindakoetan, baita horien guztien konponketetan ere, saldutako sanitare produktuak espezialistak eman dituen oharrenei estu lotzen zaizkiela eta erabiltzaileari ongi egokitzen zaizkiola egiaztatu beharko du espezialistak berak.

2.- Proba hori egiteko, aipatutako produktu horiek eta preskripzio-agiria berekin daramatzala joan beharko du erabiltzaileak kontsultategira, medikuak esandako epearen barruan.

3.- Proba horren emaitza preskripzio-agirian, dagokion atalean, adierazi beharko da: positiboa bada, bere ongi iritzia sinatuko du preskripzioa egin duen espezialistak; negatiboa bada, berriz, establezimendu saltzaileak egin beharreko zuzenketak, behar bezala arrazoiturik, agertuko ditu aparteko orri batean.

4.- Establezimendu saltzailea behartuta dago preskripzioa egin duen medikuak sanitare produktuen eta

sente si dicho modelo es único. En caso de que existan varios modelos del producto prescrito que se ajusten a lo dispuesto en el apartado anterior, deberán dispensar el solicitado por el usuario.

3.- El usuario podrá optar voluntariamente por adquirir otro modelo del producto sanitario prescrito cuyo precio sea superior al señalado en el Catálogo General de Material Ortoprotésico. En tal caso, el establecimiento dispensador le informará de que la diferencia de precios entre el producto efectivamente dispensado y el especificado en el catálogo no será financiada por el Departamento de Sanidad.

4.- En el caso de que en el documento de prescripción exista una discordancia entre el número de código consignado y la descripción del producto, esta última siempre tendrá preferencia, por lo que el establecimiento dispensará el producto descrito al precio del código que realmente le corresponda, advirtiéndolo de este hecho tanto al usuario como al especialista prescriptor.

5.- En la elaboración de productos a medida y de productos que requieran una adaptación específica al usuario, así como en las reparaciones de todos ellos, los establecimientos se ajustarán estrictamente a las indicaciones consignadas por el facultativo en el documento de prescripción.

6.- El establecimiento dispensador entregará en todo caso al usuario el certificado de garantía y composición del producto sanitario dispensado y una hoja informativa con las recomendaciones precisas para su mejor conservación en condiciones de utilización normal y las advertencias para evitar su mal uso.

7.- Así mismo, salvo en los casos en que se haya autorizado el abono directo de la prestación ortoprotésica con arreglo a lo establecido en el artículo 11, el establecimiento dispensador devolverá al usuario el documento de prescripción y le hará entrega de la factura original.

#### Artículo 7.- Comprobación de los productos prescritos.

1.- En los casos en que se prescriban productos a medida y productos que requieran una adaptación específica al usuario, así como en las reparaciones de todos ellos, el especialista prescriptor está obligado a comprobar que los productos sanitarios dispensados se ajustan rigurosamente a sus indicaciones y se adaptan perfectamente al usuario.

2.- Con el fin de realizar dicha comprobación, el usuario deberá acudir a la consulta provisto de los mencionados productos y del documento de prescripción en el plazo indicado por el facultativo.

3.- El resultado de la comprobación quedará reflejado en el apartado correspondiente del documento de prescripción. Si el resultado es positivo, el especialista prescriptor firmará el visto bueno al producto. Si el resultado es negativo, indicará, razonándolas y en hoja aparte, las rectificaciones que el establecimiento dispensador deba realizar.

4.- El establecimiento dispensador está obligado a llevar a cabo todas las rectificaciones de estos productos

horien konponketen gainean behar bezala arrazoituta agertzen dituen oker guztiak zuzentzera. Horren ondoren, berriro egin beharko da lehengo proba saioa espezialistaren ongi iritzia lortzeko.

5.- Aurreko idazatian sanitare produktuen akatsen gainean aipatu diren zuzenketei buruz desadostasunik badago establezimendu saltzaileen eta preskripzioa egin duten espezialisten artean, barruti horretako ortoprosesi zerbitzuek arduratzen diren ikuskaritza zerbitzuei dagokie horren berri ematea; horren ostean, zerbitzu hori kudeatzen duen organoak garbituko du auzia.

#### 8. atala.- Sanitate produktuen bermealdia.

Ortoprosesi Materialen Katalogo Orokorrean sanitare produktu bakoitzari adierazi zaion bermealdia erabiltzaileak produktua erosten duen egunean jarriko da indarrean. Neurritara, beren-beregi, egindako produktuak eta erabiltzaileari propio egokituta egindakoak salbuespenak izango dira, hauen bermealdia preskripzioa egin duenaren ongi iritzia lortzen den egunean hasten baita.

Bermealdiak dirauen artean, produktuaren elaborazio- edo egokitze-lanari egotz dakiokkeen akats-konponketa oro establezimendu saltzaileak hartu beharko du bere gain.

9. atala.- Zerbitzuaren ordainketa eta finantziabideak.

1.- Establezimendu saltzaileei erositako sanitare produktuak, bakoitza bere prezioaren arabera, ordaindu beharko dizkiete erabiltzaileek saltzaileei; salbuespena izango dira 11. atalean ortoprosesi zerbitzuen ordainketa zuzenaz ezarritako kasuak.

2.- Osasun Sailak ortoprosesi zerbitzuak zati batean finantzatzeko bideak honela definitzen dira dekretu honetan:

- a) Kanpo-protesiak eta gurpil-aulkiak ordaintzea.
- b) Ortesiak eta prosesi bereziak eskuratzeko dirulaguntzak.

3.- Kasu biotan, Osasun Sailak finantzatu dezakeen gehiena Ortoprosesi Materialen Katalogo Orokorrean horretarako ezarritakoa izango da.

4.- Osasun Sailak zati batean finantzatu ditzakeen sanitare produktuek PA (Proporzionalitate Azterketa) identifikazio-siglak eraman beharko dituzte Ortoprosesi Materialen Katalogo Orokorrean; eta finantzazioa produktuen ezaugarrien arabera eta beste finantzabiderik dagonenetz kontutan hartuta egingo da.

5.- Atal honetako 2. idazatian aipatutako finantzabideak gauzatzeko, jardunbide hauek erabiliko dira:

- a) Jardunbide orokorra: gastuen ordainketa sanitare produktuak erabiltzaileari saltzen zaizkion unean egitea.

sanitarios y de sus reparaciones que razonadamente le hubieran sido indicadas por el facultativo prescriptor. En este caso, será precisa una comprobación posterior del producto para la obtención del visto bueno.

5.- Las discrepancias que pudieran surgir entre los establecimientos dispensadores y los especialistas prescriptores en relación a las rectificaciones de los productos sanitarios previstas en el apartado anterior deberán ser informadas debidamente por los servicios de inspección encargados de la supervisión de la prestación ortoprotésica en el Área correspondiente y serán resueltas por el órgano de gestión de dicha prestación.

#### Artículo 8.- Garantía de los productos sanitarios.

El plazo de garantía señalado para cada producto sanitario en el Catálogo General de Material Ortoprotésico comenzará a computarse desde la fecha de dispensación al usuario, excepto cuando se trate de productos a medida, productos que requieran una adaptación específica al usuario o la adaptación de estos últimos, en cuyo caso comenzará a computarse desde la obtención del visto bueno del prescriptor.

Durante el plazo de garantía correrán por cuenta del establecimiento dispensador cuantas rectificaciones imputables a su elaboración y adaptación sean precisas.

Artículo 9.- Abono de la prestación y modalidades de financiación.

1.- Los usuarios deberán abonar a los establecimientos dispensadores los precios correspondientes a los productos sanitarios que éstos les hayan entregado, excepto en los casos en que se haya autorizado el abono directo de la prestación ortoprotésica con arreglo a lo establecido en el artículo 11.

2.- Las modalidades de financiación por parte del Departamento de Sanidad de la prestación ortoprotésica a que se refiere este Decreto son:

- a) El pago de las prótesis externas y sillas de ruedas.
- b) La concesión de ayudas económicas para la adquisición de órtesis y prótesis especiales.

3.- En ambos casos, el importe máximo financiable por el Departamento de Sanidad será el estipulado como tal en el Catálogo General de Material Ortoprotésico.

4.- El Departamento de Sanidad podrá financiar solo parcialmente aquellos productos sanitarios que aparezcan identificados en el Catálogo General de Material Ortoprotésico con las siglas EP (Estudio de Proporcionalidad) en función de las características técnicas de los mismos y de la existencia de otras fuentes de financiación.

5.- Las modalidades de financiación a que se refiere el apartado 2 de este artículo se harán efectivas por medio de los siguientes procedimientos:

- a) Procedimiento general: El reintegro de los gastos realizados por los usuarios en el momento de la dispensación de los productos sanitarios.

b) Ordainketa, zuzenean, establezimendu saltzaileari egiteko jardunbidea: bakarrik ortoprotesi zerbitzua jasotzen duena hauetako egoeraren batean dagoenean:

– Diru-baliabide nahikorik ez edukitzeagatik eta Gizarte Segurantzaren babesa ez izateagatik Osakidetza-aren atentzio sanitarioa jasotzeko eskubidea daukanean (otsailaren 16ko 26/1988 Dekretua).

– Bere egoera ekonomikoa Osasun sailburuak urtero onartzen duen baremoaren barruan –sarrerak, familiakideak eta ortoprotesi zerbitzuaren prezioa kontutan hartuta– sartzen denean.

10. atala.– Gastuen ordainketa.

1.– Gastuak ordaintzeko jardunbideak, kasuan kasu, helburu hauek izango ditu:

a) Kanpo-protesiak eta gurpil-aulkiak eskuratzeagatik erabiltzaileak ordaindu duen dirukopurua itzultzea, Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorrean finantzazio publikorako ezarrita dagoen gehieneko preziorarte.

b) Erabiltzaileak ordaindu duena deskontatu ondoren, dirulaguntza bat ematea, ortesiak eta protesi bereziak eskuratzeagatik Katalogoan finantzazio publikorako ezarrita dagoen gehieneko preziorarte.

2.– Jardunbidea eskatzailearen eskariz hasiko da eta beti ere ortoprotesi zerbitzua erosi ondoren.

3.– Preskripzio-agirian horretarako espreski adierazitako idazatian idatziko dira eskabideak eta, ondoren, hauetako lekuren batean aurkeztu beharko dira: Barruti Zuzendaritzetako erregistroan, Ikuskaritza Medikuetan, Osakidetza osasun zentroetako Unitate Administratiboetan edo Pazienteak Atenditzeko Zerbitzuetan, edota Herri Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 atalean ezarritako bideetako bat erabiliz. Eskabidearekin batera, preskripzio-agirian bertan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

4.– Hiru hilabete baino lehen ebatziko ditu gastuen ordainketarako eskabideak Osasun Aseguramendu eta Kontratatziorako zuzendariak. Osterantzean, erabakirik eman ezean, eskabidea ezetsi dela ulertuko da.

5.– Osasun Aseguramendu eta Kontratatziorako zuzendariaren erabakien aurka bide laboralaren aurretiko erreklamazioa aurkeztu ahalko da.

11. atala.– Ortoprotesi zerbitzuaren zuzeneko ordainketa.

1.– Establezimendu saltzaileari ortoprotesi zerbitzua zuzenean ordaintzearen helburua da erabiltzaileari prestazioa ematea, Osasun Sailak ordaindu beharreko zatia aurretik ordaindu barik.

b) Procedimiento de abono directo al establecimiento dispensador, que se utilizará únicamente cuando los receptores de la prestación ortoprotésica se encuentren en alguna de estas circunstancias:

– Reciban asistencia sanitaria en virtud del Decreto 26/1988, de 16 de febrero, por el que se reconoce el derecho a la asistencia sanitaria prestada por el Servicio vasco de salud-Osakidetza, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, a quienes carezcan de suficientes recursos económicos y no estén protegidos por el sistema de Seguridad Social.

– Sus condiciones socioeconómicas se ajusten al baremo que anualmente apruebe el Consejero de Sanidad en base a los ingresos, miembros de la unidad familiar y precio de la prestación ortoprotésica.

Artículo 10.– Reintegro de gastos.

1.– El procedimiento de reintegro de los gastos realizados por el usuario tiene por objeto, según los casos:

a) El reembolso del precio que el usuario haya satisfecho por la adquisición de prótesis externas y sillas de ruedas, hasta el tope máximo de financiación pública establecido en el Catálogo General de Material Ortoprotésico.

b) La concesión de una ayuda económica, una vez descontada la aportación económica del usuario, hasta el importe máximo de financiación pública previsto en el catálogo para la adquisición de órtesis y prótesis especiales.

2.– Se iniciará siempre con posterioridad a la dispensación de la prestación ortoprotésica y a solicitud del usuario.

3.– Las solicitudes se formularán en el apartado expresamente previsto para tal fin en el documento de prescripción y podrán presentarse en el registro de la Direcciones de Área, en las Inspecciones Médicas, en las Unidades Administrativas o Servicios de Atención al Paciente de los centros sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud o de cualquiera de las formas recogidas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Irán acompañadas de la documentación que se indica en el propio documento de prescripción.

4.– Las solicitudes de reintegro de gastos serán resueltas por el Director de Aseguramiento y Contratación Sanitaria en el plazo máximo de tres meses. La falta de resolución en plazo tendrá efectos desestimatorios.

5.– Contra las resoluciones del Director de Aseguramiento y Contratación Sanitaria podrá interponerse reclamación previa a la vía laboral.

Artículo 11.– Abono directo de la prestación ortoprotésica.

1.– El procedimiento de abono directo de la prestación ortoprotésica al establecimiento dispensador tiene por objeto permitir al usuario acceder a la prestación ortoprotésica sin tener que adelantar el importe financiable por el Departamento de Sanidad.

2.- Jardunbidea eskatzailearen eskariz hasiko da eta beti ere ortoprotesi zerbitzua erosi aurretik.

3.- Preskripzio-agirian horretarako espreski adierazitako idazatian idatziko dira eskabideak eta, ondoren, hauetako lekuren batean aurkeztu beharko dira: Barruti Zuzendaritzetako erregistroan, Ikuskaritza Medikuetan, Osakidetzako osasun zentroetako Unitate Administratiboetan edo Pazienteak Atenditzeko Zerbitzuetan, edota Herri Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guz-tientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 atalean ezarritako bideetako bat erabiliz.

4.- Hilabete baino lehen ebatziko ditu ortoprotesi zerbitzua zuzenean ordaintzeko eskabideak Osasun Aseguramendu eta Kontratatziorako zuzendariak. Osterantzean, erabakirik eman ezean, eskabidea ezetsi dela ulertuko da.

5.- Osasun Aseguramendu eta Kontratatziorako zuzendariaren erabakien aurka bide laboralaren aurretiko erreklamazioa aurkeztu ahalko da.

6.- Behin eskabidea onartu ondoren, erabiltzaileak aukeratu duen salmenta-zentrora joko du, preskripzio-agiria eta ortoprotesi zerbitzua zuzenean ordaintzeko baimen-erabakiaren jarrotizko dokumentua berekin daramatzala. Ortoprotesia eskuratu eta, hala badagokio, dagokion zatia ordaindu ondoren, erosleri jatorrizko baimen-erabakiaren kopia emango dio zentroak; eta helbidearen arabera dagokion Osakidetzako Barruti Zuzendaritzara, zuzenean ordaintzeko baimen-erabakiaren jatorrizko preskripzio-agiria eta saldutako sanitate produktuen jatorrizko faktura bidaliko ditu.

#### 12. atala.- Kontrol Bereziko produktuak (KB).

1.- Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorrean KB (Kontrol Berezia) siglak daramatzaten produktuak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango du erabiltzaileak, produktu horiek erosi aurretik, osasun-administrazioaren bisatua lortzea.

2.- Espezialistak, preskripzio-agiriarekin batera, berriazko txosten mediko bat egingo du. Bertan, produktua beharrezkoa dela arrazoitu beharko du, eta bisatua lortzeko erabiltzaileari zein izapide bete behar dituen azalduko dio.

3.- Erabiltzaileak aukeratu duen salmenta-zentrora joko du, preskripzio-agiria eta medikuaren txostena berekin daramatzala, eta preskribitutako produktuaren aurrekontua edo faktura pro-forma eskatuko du.

4.- Erabiltzaileak preskripzio-agiria, medikuaren txostena eta salmenta-zentroak emandako aurrekontua edo faktura pro-forma aurkeztuko ditu hauetako lekuren batean: Barruti Zuzendaritzako erregistroan, Ikuskaritza Medikuan, edota dagokion Osakidetzako osasun zentroko Unitate Administratiboan edo Pazienteak Atenditzeko Zerbitzuan.

2.- Se iniciará siempre con anterioridad a la dispensación de la prestación ortoprotésica y a solicitud del usuario.

3.- Las solicitudes se formularán en el apartado expresamente previsto para tal fin en el documento de prescripción y podrán presentarse en el registro de la Direcciones de Área, en las Inspecciones Médicas, en las Unidades Administrativas o Servicios de Atención al Paciente de los centros sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud o de cualquiera de las formas previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.- Las solicitudes de abono directo de la prestación ortoprotésica al establecimiento dispensador serán resueltas por el Director de Aseguramiento y Contratación Sanitaria en el plazo máximo de un mes. La falta de resolución en plazo tendrá efectos desestimatorios.

5.- Contra las resoluciones del Director de Aseguramiento y Contratación Sanitaria podrá interponerse reclamación previa a la vía laboral.

6.- Autorizado el abono directo, el usuario acudirá al centro dispensador de su elección provisto del documento de prescripción y del original de la resolución de autorización de abono directo de la prestación ortoprotésica. Tras la dispensación y, en su caso, el pago por el usuario de la aportación que le corresponda, el centro devolverá a éste una copia de la resolución y remitirá a la Dirección de Área de Osakidetza-Servicio vasco de salud correspondiente a su domicilio el documento de prescripción, el original de la resolución de autorización de abono directo y la factura original correspondiente a los productos sanitarios dispensados.

#### Artículo 12.- Productos de Especial Control (EC)

1.- La prescripción de aquellos productos que en el Catálogo General de Material Ortoprotésico aparezcan acompañados de las siglas EC (Especial Control), se halla sometida a visado por parte de la administración sanitaria, visado que el usuario deberá obtener con carácter previo a la dispensación de los mismos.

2.- El especialista adjuntará al documento de prescripción un informe médico específico en el que de forma motivada justifique la necesidad del producto e informará al usuario de los trámites que debe llevar a cabo para la obtención del visado.

3.- El usuario acudirá con el documento de prescripción y el informe médico al establecimiento dispensador de su elección y solicitará un presupuesto o factura pro-forma del producto prescrito.

4.- El usuario presentará en el registro de la Dirección de Área, en la Inspección Médica, en la Unidad Administrativa o en el Servicio de Atención al Paciente del centro sanitario de Osakidetza-Servicio vasco de salud que le corresponda el documento de prescripción, el informe médico y el presupuesto o la factura pro-forma emitida por el establecimiento dispensador.

5.- Izapide guztiak amaitzen direnean, preskripzioak bisatua lortu duen ala ez jakinaraziko zaio erabiltzaileari eta agiri guztiak itzuliko zaizkio.

6.- Bisatua lortutakoan, ohiko bidea erabiliko da salerosketa burutzeko.

7.- Berez bisatua behar duen preskripzio-agiri bat, baina bisaturik gabe, aurkezten badu erabiltzaileak establezimendu batean, honek dagokion aurrekontua edo faktura pro-forma egingo du, eta atal honetan ezarritakoa jakinaraziko dio, alegia, produktua erosi baino lehen bisatua eskatu behar duela.

13. atala.- Berriz erabil daitezkeen produktuak itzultzea.

Katalagoan BE (Berriz Erabiltzekoa) letrak daramatzaten produktuak berriz erabili ahal izango dira; beraz, erabiltzaileak, erabili ondoren, Osasun Administrazioari itzuliko dio produktua, preskripzioa egin zuen osasun zentzoko Unitate Administratiboak edo Pazienteak Atenditzeko Zerbitzuak adierazitako modu eta baldintzetan.

Produktua berriz erabiltzekoa dela hiru aldiz jakinaraziko zaio erabiltzaileari: preskripzioa egiten denean, salerosketa egiten denean eta ortoprotesi zerbitzua fondo publikoekin finantzatzeko eskabidea egiten denean.

14. atala.- Ortoprotesi Zerbitzuaren Batzorde Aholkuemailea.

1.- Ortoprotesi Zerbitzuaren Batzorde Aholkuemailea sortzen da, Osasun Sailaren menpean.

2.- Hauek izango dira Batzordeko kideak:

Lehendakaria: Farmazi zuzendariordea.

Bokalak:

a) Ortoprotesi zerbitzuaz arduratuko den Farmazi Zuzendariordetzako teknikaria; idazkari moduan arituko da, eta hitza eta botoa izango ditu.

b) Barruti Zuzendaritzetako Osasun Laguntzarako Zuzendariordetzan zerbitzu honetaz arduratuko diren teknikariak.

c) Osakidetzan zerbitzu honetako preskripzioez arduratzen ohi diren bi mediku: bata traumatologian espezialista izango da eta bestea errehabilitazioan.

d) Ortoprotesi zerbitzuak saltzeko hitzarmenak sinatu dituzten establezimenduetako hiru ordezkari.

3.- Eztabaidagaia nolakoa den, aukera egongo da alor horretako adituek ere parte har dezaten; baina beti ere aholkulari gisara, hitzarekin baina botorik gabe.

4.- Osasun sailburuak izendatuko ditu batzordekideak.

5.- Hauek izango dira Batzordearen zereginak:

5.- Concluidos los trámites, se comunicará al usuario si la prescripción ha obtenido o no el visado y se le devolverá toda la documentación una vez cumplimentada.

6.- A partir de la obtención del visado, el procedimiento de dispensación se completará siguiendo el trámite normal.

7.- El establecimiento al que acudiera un usuario con un documento de prescripción que precisando visado careciera de él, elaborará el presupuesto o factura pro-forma correspondiente e indicará al usuario la necesidad de solicitar el visado previo a la dispensación de acuerdo con lo establecido en este artículo.

Artículo 13.- Devolución de productos reutilizables.

Todos los productos sanitarios que en el catálogo aparezcan señalados con la letra R tendrán la consideración de reutilizables, por lo que, una vez concluida su utilización, el usuario deberá proceder a su devolución a la Administración Sanitaria en las condiciones que le indique el Servicio de Atención al Paciente o la Unidad Administrativa del centro sanitario origen de la prescripción.

El usuario será informado de que el producto sanitario es reutilizable en el momento de la prescripción, en el de la dispensación y con motivo de la solicitud de financiación con cargo a fondos públicos de la prestación ortoprotésica.

Artículo 14.- Comisión Asesora de la prestación ortoprotésica.

1.- Se crea la Comisión Asesora sobre la prestación ortoprotésica, dependiente del Departamento de Sanidad.

2.- Dicha Comisión estará formada por:

Presidente: Subdirector de Farmacia.

Vocales:

a) El técnico responsable de la prestación ortoprotésica de la Subdirección de Farmacia, que actuará como Secretario, con voz y voto.

b) El técnico que en la Subdirección de Asistencia Sanitaria de cada una de las Áreas Sanitarias, tenga a su cargo el control de esta prestación.

c) Dos facultativos de Osakidetza-Servicio vasco de salud prescriptores habituales de esta prestación, especialistas uno de ellos en traumatología y el otro en rehabilitación.

d) Tres representantes de los establecimientos firmantes del convenio de colaboración para la dispensación de la prestación ortoprotésica.

3.- También podrán ser llamados otros expertos en la materia, en función de los asuntos a tratar. Estos expertos actuarán en calidad de asesores, con voz pero sin voto.

4.- Los miembros de la Comisión serán nombrados por el Consejero de Sanidad.

5.- Las funciones de la Comisión serán las siguientes:



a) Ortopotesi zerbitzuaren eremuan sanitate produktuak edo produktu-multzoak aldatzeko, baztertzeko edo berriak sartzeko proposatzea, 1996ko urtarrilaren 18ko Ministro-Aginduan xedatutakoaren arabera. Proposamen horiek Osasun eta Kontsumo Ministerioaren menpeko Ortopotesi Zerbitzuaren Batzorde Tekniko Aholkuemailerara eraman ahal izango ditu Osasun Sailak.

b) Osasun Sailari Ortopotesi Materialen Katalogo Orokorrean egin beharreko aldaketak proposatzea: sanitate produktuak kentzea edo sartzea eta gehieneko prezioeten, preskribitzeko baldintzetan, Katalogoa berritzeko betebeharretan eta bermearen indarraldian egiten diren aldaketak.

c) Txostenak eta proposamenak egitea ortopotesi zerbitzuen edozein alderdiren gainean; esate baterako, Katalogoko sanitate produktuen eraginkortasuna, alor horretako aurrerapenak, produktuak zuzen preskribitu eta saltzen diren, zerbitzuak erabiltzaileak gogobetetzen dituen ala ez, establezimendu saltzaileen egokitasuna, edo zerbitzuak aldian behin izan ditzakeen akatsak eta horiek konpontzeko neurriak.

d) Hitzarmenak bete daitezzen, haien jarraipena egitea: egiten diren salaketak eta errakuntzak jaso eta horientako zigor-neurriak proposatu.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Protesi kirurgiko finkoei dagokienez, haiek agintzea, saltzea eta finantzatzea Osasun Sistema Nazionalaren osasun prestazioen ordenazioari buruzko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak arautuko ditu (I. eranskina, 3. puntua, 3. idazatia), eta horretarako, beren-beregi onartutako katalogoa erabili beharko da. Katalogo hori egiteko, Osasun sailburuak lan-talde berezi bat izendatuko du.

#### INDARGABETZE XRDAPENA

Indargabetuta geratzen dira ortopotesi zerbitzueta- rako finantzabide berria ezartzeko den Osakidetzako zuzendariaren urtarrilaren 10eko 021/1994 Erabakia eta dekretu honetan ezarritakoaren aurka daudekeen maila bereko edo beharagoko arau guztiak.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Dekretu honetan jaso ez diren prozedurazko gora-beheretan, Herri Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

*Bigarrena.*— Aginpidea ematen zaio Osasun sailburuari beharrezkotzat ikusten dituen xedapen osagarriak emateko, dekretu hau ahalik eta ongien aplikatu dadin.

a) Proponer directrices sobre inclusión, modificación o exclusión de productos sanitarios o grupos de ellos del contenido de la prestación ortoprotésica, de acuerdo con lo previsto en la Orden ministerial de 18 de enero de 1996, que el Departamento de Sanidad podrá elevar a la Comisión Técnica Asesora sobre Prestación Ortoprotésica dependiente del Ministerio de Sanidad y Consumo.

b) Proponer al Departamento de Sanidad la inclusión y exclusión de productos sanitarios del catálogo general de material ortoprotésico, así como la modificación de sus precios máximos, condiciones especiales de prescripción, requisitos para su renovación y plazo de garantía.

c) Emitir informes y elevar propuestas sobre cualquier aspecto de la prestación ortoprotésica, como la eficacia de los productos sanitarios incluidos en el catálogo, las innovaciones que puedan producirse en este campo, la corrección de las prescripciones y de las dispensaciones, el grado de satisfacción de los usuarios, la adecuación de los establecimientos dispensadores y las deficiencias o anomalías que eventualmente se detecten en el desarrollo de la prestación y las medidas que podrían adoptarse para eliminarlas.

d) Realizar un seguimiento del cumplimiento de los convenios, analizando tanto las posibles denuncias que se produzcan como las faltas que se cometan y proponiendo las medidas sancionadoras pertinentes.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

La prescripción, dispensación y financiación de las prótesis quirúrgicas fijas se regirá por lo establecido en el apartado 3.º del punto 3 del Anexo I del Real Decreto 63/1995, de 20 de enero, sobre ordenación de prestaciones sanitarias del Sistema Nacional de Salud, y estará sujeta al Catálogo que se apruebe al efecto. Para la elaboración de este catálogo, el Consejero de Sanidad constituirá un grupo de trabajo específico.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas la Resolución 021/1994, de 10 de enero, del Director General de Osakidetza/Servicio vasco de salud por la que se establece el nuevo sistema de financiación de la prestación ortoprotésica y cuantas normas de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en este Decreto.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— En los aspectos procedimentales no previstos en este Decreto será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.*— Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones complementarias que estime procedente en orden a la mejor aplicación del presente Decreto.

*Hirugarrena.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko urtarrilaren 22an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun sailburua.  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

**LURRALDE ANTOLAMENDU,  
ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA**

**Zk-689**

28/1997 DEKRETUA, otsailaren 11koa, Euskal Autonomi Elkarteke Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko dena.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak Euskal Herriko lurraldea antolatzeko egiterapideak definitu eta araupeztzea du xede, bai eta Herri-Administrazioei euren aginpidez baliatuz garatzea egokitzen zaizkien lurraldean eragina duten egintzak koordinatzen direla bermatzeko beharrezko diren irizpideak eta jardunbideak ezartzea ere.

Euskal Autonomi Elkarteke lurraldea antolatzeko, hiru egiterapide eratzen ditu aipatutako Legeak: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Lurraldearen Antolamendurako Zatikiko Planak eta Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planak.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak lurraldearen eta hiri antolaketarako gainerako egiterapideak gauzatzeko abiapuntu dira, eta honako hauek dira beren egitekoak: a) jarduera ekonomiko eta sozialak lurraldean kokatzeko prozesuak bideratu eta arautzen dituzten irizpide eta arauak egitea, Euskadirako guztiontzako interesgarri den beharrezko lurraldearen oreka bermatzeko eta aproposak diren lurraldearen espazioetara jarduera ekonomikoa erakartzeko egoki diren baldintzak eratu ere egiten direla bermatzeko; b) lurralde eta espazioak antolatu eta horien erabilpenari dagokienez, erreferentzia esparrua eratzea, Euskal Autonomi Elkartearen lurraldean jardun behar duten Herri-Administrazio desberdinen arloko politikak gauzatu eta burutzeko, bai eta Foru Aldundien eta Udalen hirigintzazko jarduerarako ere, horien guztien arteko koordinazio eta bateragarritasun egokia bermatzekotan eta c) Estatuarekin edo beste Elkarte Autonomo batzuekin elkarlanean jardutea eskatzen duten lurralde ekintzak ohartematea.

*Tercera.*— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 1997.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

EL Consejero de Sanidad,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO, VIVIENDA  
Y MEDIO AMBIENTE**

**Nº-689**

DECRETO 28/1997, de 11 de febrero, por el que se aprueban definitivamente las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, tiene por objeto la definición y regulación de los instrumentos de ordenación territorial del País Vasco, así como el establecimiento de los criterios y procedimientos necesarios para asegurar la coordinación de las acciones con incidencia territorial que corresponda desarrollar a las diferentes Administraciones Públicas en ejercicio de sus respectivas competencias.

Con la finalidad de ordenar el territorio de la Comunidad Autónoma, la referida Ley crea tres instrumentos: las Directrices de Ordenación Territorial, los Planes Territoriales Parciales y los Planes Territoriales Sectoriales.

Las Directrices de Ordenación Territorial constituyen el marco de referencia para la formulación de los restantes instrumentos de ordenación territorial y ordenación urbana, siendo sus funciones: a) formular el conjunto de criterios y normas que orienten y regulen los procesos de asentamiento en el territorio de las distintas actividades económicas y sociales, a fin de garantizar el necesario equilibrio territorial de interés general para Euskadi y la creación de las condiciones adecuadas para atraer la actividad económica a los espacios territoriales idóneos; b) construir un marco de referencia en cuanto a la ordenación y al uso de los espacios y del territorio para la formulación y ejecución de las políticas sectoriales de las distintas Administraciones Públicas que hayan de actuar sobre el territorio de la Comunidad Autónoma, así como para la actividad urbanística de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos, a fin de garantizar una adecuada coordinación y compatibilización de todas ellas y c) prever las acciones territoriales que requieran la acción conjunta con el Estado u otras Comunidades Autónomas.